



OROZKOKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OROZKO  
(BIZKAIA)

PRENTSA OHARRA

## Orozkoko Udalak salatu nahi ditu abereen aurkako txakurren erasoak

- *Olaguenaga inguruan 6 ardi hil eta 8 zauritu dira aurreko asteburuan izandako hainbat erasoen ondorioz*

*Orozkoko, 2019ko urtarrilaren 31an.- Aurreko asteburuan Olaguenaga inguruan gertatutako txakurren erasoak salatu nahi ditu Orozkoko Udalak. 6 ardi hil zituzten animaliek eta beste 8 zauritu zituzten. Halaber, kaltea jaso duen abeltzainari babesa erakutsi nahi dio tokiko erakundeak. Mota honetako gertakariak ez dira gutxi. Bizkaiko Foru Aldundiari kezka jakinarazi dio udal gobernua eta eskatu dio oihanzaingoa bitartez gelditzea mendietan egoten den txakurren kontrol eza.*

### **Udal araudia**

Bestetik, Orozkoko Udalak gogorarazi nahi du tokiko araudiak jasotzen dituela nahitaezkoak diren hainbat neurri. Besteak beste, kale eta espazio publikoetan txakurrak uneoro lotuta joan behar dira, haien ezaugarriekin bat datorren eta gehienez 2 metroko luzera duena kate edo uhal sendoarekin. Puntu hori ez betetzeak 300,52 eta 1.502,53 euro arteko isuna ekar dezake. Halaber, edozein animalia jabeak beharrezko neurriak hartu beharko ditu beti gorotzak kale edo espazio publikoetan geratu ez daitezen.